

Hasiera > Albisteak > Ferrer eta Garmendiak hitzaldia eman dute Goienagusik antolatuta

AlbisteakGIZARTEA

Ferrer eta Garmendiak hitzaldia eman dute Goienagusik antolatuta

Mondraberri - 2023-12-18

2960




Goienagusik 'Mariano Ferrer: kazetaritza eta konpromisoa' hitzaldia eskaini du gaur goizean Kulturatan. Hizlariak Elixabete Garmendia Lasa (Ormaiztegi, 1953) kazetari eta idazlea eta Esther Ferrer Rizo (Donostia, 1981) Mariano Ferrerren alaba izan dira.

Aurkezpenean azaldu dutenez, "Mariano Ferrer (Donostia, 1939-2019) ezinbesteko erreferente bihurtu da Euskal Herriko kazetaritzaren historian. 1971tik aurrera Donostiako Herri Irratian lan egin zuen, lehenengo Radio Reloj irratiarekin, gero El Kiosko de la Rosi irratiarekin, benetan ezaguna izatera iritsi zena. Komunikatzaile handia izateaz gain, bere nortasun-ezaugarri nagusiak pentsamendu askea, edozein botere motaren kritika eta hainbat gizarte-ekimenekiko konpromisoa (Elkarri, SOS-Arrazakeria...) izan ziren. "




'Mariano Ferrer, el periodismo reflexivo: Kazetaritza eta konpromisoa' liburua izan da hitzaldiaren ardatza. Liburuan Elixabete Garmendiak koordinatzaile lana egin du, eta honako hauek parte hartu dute: Sabino Ormazabal Elola, Txemi Apaolaza Beraza, María Pilar Rodríguez, Txema Ramirez de la Piscina, Ramón Zallo, Pedro Ibarra, Pilar Kaltzada González, Imanol Murua Uria, Leire Iturregi Mardaras, Karlos Ordóñez Ferrer, Martxelo Otamendi, Bernardo Atxaga, eta Elixabete Garmendia bera.

Liburu hau osatzen duten testu gehienak UPV/EHuren 2022ko Udako Ikastaroetako baten emaitza dira. "Arrasto ezabaezina utzi zuen Mariano Ferrerrek Euskal Herriko kazetaritzan. Horren lekuko, Euskal Herriko Unibertsitateak Donostiako Miramar jauregian antolatzen dituen Udako Ikastaroetan, 2022ko ekainean, eskaini zitzaion ikastaroa: *'Kazetaritza politikoa konpromiso sozial eta etiko gisa. Mariano Ferrer'*. Bertan, hark lantzen zuen kazetaritzaren ezaugarriak aztertu zituzten hainbat adituk. Frankismoaren azken urteetatik hasi eta Euskal Herriak bizi izan zituen garai gatazkatsuetan zehar Mariano Ferrerrek garatu zuen lanaren klabeak aletu zituzten: boterearekiko independentzia eta gizartearekiko konpromiso zabala, etika eta gizatasuna. Komunikatzaile bikaina zen haren ahotik eta lumatik ateratako uztaren analisi eta kontakizunak jasotzen ditu, beraz, argitalpen honek."



ETIKETAARRASATEElixabete GarmendiaEsther FerrerGoienagusi

Like 1



ERANTZUN BAT UTZI

OHARRA: Foro honek ez ditu iruzkin sexista, matxistarik,... onartuko

Izena:*

Email:*

Webgunea:

☐ Gorde nire izena, posta elektronikoa eta webgunean nabigatzaile honetan iruzkinak egiteko hurrengo aldian.

Zure iruzkina utzi

KATEGORIAK

HASIERA

Albisteak

Kultura

Kirolak

Auzoak

Iritziak

Eskelak

SARE SOZIALAK



MONDRABERRI

www.mondraberri.eus

Tel: 943 797837

Arrasate Pasealekua 3-bajo

P.K. 101

20500 – ARRASATE

mondraberri@gmail.com